

424 zenbakia. 2000ko urriaren 6a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

BITZ

publi

Gasolioa ala bizia!

Gasolioaren prezioak egoera larrian jarri ditu hainbat sektore



CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga 36, Bergara
Tf. 943 76 47 49 / 73



**Xsara estilo berria.
Zatoz probatzera.**

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen negu kolekzio berri ikusgai

eta orain
ALFONBRAK

TELAETXE S.A.

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrora • BERGARA • Tel.: 943 76 39 40 /
Astelehenetik larunbatera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabaldu



Zer da globalizazioa?

Tomasa Zabaleta / San Joxepeko presidentea

Globalizazioa fenomeno berri bat da, gaurkotasan haundikoa, baina jende arruntarentzat, gehientzat, nahiko ezezaguna.

Beraz, lehenengo sortzen zaigun galdera hau da: Zer da globalizazioa? Gaian aditu direnek esaten digute ekonomiaren, merkatuaren eta kulturaren mundializazio prozesu bat dela.

Eta, zerk eragin du prozesu hori? Adituen esanetan, batez ere, informazio eta komunikazio teknologiek izan duten garapen azkarrak sortutako prozesu bat dugu, bitarteko horiek munduko alde guztiak elkarren artean lotzea ekarri baitute.

Globalizazioa omen da gaur munduan gertatzen ari den fenomeno nagusia, gizateria historiaren beste aldi batean sartuko duena, bere alde positibo eta negatiboekin.

Horregatik, komenigarri iruditu zaigu gaia jendeari aurkeztea, egokitu zaigun mundu honetan gertatzen denaz jakitun izanik, gaiari buruzko gogoeta egin ahal izan dezagun. Antolatu dugun Hamabostaldi Kulturalen hiru hitzaldi eta mahai-inguru bat izango dira eta eu-

retan azaldu eta aztertu nahi dira ekonomia, gizarte, kultura eta etikaren ikuspegiak aldaketa hau eragin duten faktoreak eta izango dituen ondorioak. Eta gogoeta horren barruan, azkenik, gizarte globalizatu honetan pertsonak izango duen zeregina aztertuko dugu.

Gaia ondo ezagutzen duen eta bere irakas esperientziatik jendeari egoki azaltzeko gai den jendea izango da hizlari lanetan.

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Antzuola eta Bergarako jubilatuek elkarteok kultur hamabostaldia herritar guztientzat izan dadin nahi dugu. Horretarako arlo ugari hartzen dituen egitaraua antolatu dugu: kultura, artea, ikuskizuna, jaia, herri-ospakizunak... Oro har, gure ustez, kalitatezko egitarau bat.

"Globalizazioa omen da gaur munduan gertatzen ari den fenomeno nagusia, gizateria historiaren beste aldi batean sartuko duena"

Hasiera emateko, San Joxepe elkarrean jubilatuen goiburutzat dugun leloa (Erretiratu izatetik presente egotera?) irudikatuko duen eskultura bat inauguratuko dugu. Goiburu hori eskulturaren bertan agerian izango da, guztiontzako jarraibide izan dadin.

Obra bere izena isilean gorde nahi izan duen bergarar baten diru-eskaintzari esker egin ahal izan da. Bere nahia izan zen diru hori gure Gizarte Etxean geratuko zen zerbaitetan gastatzea eta Zuzendaritza batzordeak aipatutako erabilera ematea erabaki zuen. Eskulturak aldaketa bat, iragaite bat, irudikatuko du: gizarteak "erretiratu"tzat jotzen zuen jubilatuek bere gizarte-eginkizunaren jabe den eta gizartean presente egon nahi duen belaunaldira iragaitea. Lana Lorentxo Askasibar eskultore elgetarrak egin du eta urriaren 10ean inauguratuko da arratsaldeko 6etan.

Beraz, nire idatzi honen bitartez, bai inaugurazio ekitaldi horretan eta baita ondorengo jardueretan ere parte hartzeko gonbitea egin nahi dizuet guztiok.

barruan



Mila Eguren

Eskola Txikiko Guraso taldekoa

"Angiozarrek bizirik iraun dezan, eskola txikia ezinbestekoa da"

8.



Gaizka Agirre

Euskadiko motokros txapelduna

"Txapelketa osoan zehar edukitako erregulartasunari esker irabazi dut"

21.



M. Berrio-Otxoa

Jantoki arduraduna

"Nere bizitzan bihar doten dana daukat eta daukaten dana bihar dot"

29.



BEKAK
Atzerrian ikasteko beka.
 Atzerri gaietarako Ministerioa.
 Goi-mailako titulatuak. Udan edo ikasturtean zehar. Italia, Eskozia, Portugal, Belgika, Irlanda eta beste herrialdeetan.
 Epe ezberdinak.

IKASTAROAK
Mekanika eta elektrizitatea.
 Bergarako Udala.
 Gizarte Ongizate Saila.
 18 urtez gorako gazteak.
 Tel: 943 779124/5.
Diseinu eta patroigintza.
 Bergarako Udala. Gizarte Ongizate Saila. 18 urtez gorako gazteak.
 Tel: 943 779124/5.

SARIK
Komiki ez sexisten lehiaketa.
 Donostiako Udala. 16 urtez gorakoentzat. Jatorrizko eta argitaratu gabeko lanak aurkeztuko dira.
 Teknika librea. Epea: azaroak 24.
Bordari eta Satarka Sariak.
 Hondarribiko Udala. Ipuin eta olerki lehiaketak. Bi maila: 18 urtez behekoentzat eta gorakoentzat.
 Epea: urriak 20.
Errenteria Hiria Ipuin Lehiaketa.
 Ereintza Elkarte. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako lanak aurkeztu ahal dira. Epea: urriak 31.

LAN ESKAINTZAK
Peoia. Bergarako Udala.
 Eskola ziurtagiria. Euskara.
 Epea: urriak 16.
2 delinente proiektista.
 Laudioko Udala (Araba).
 Eskatzen da: LHII, delinente proiektista, informatika programak erabiltzen jakitea.
 Epea: urriak 10.
Arkitektu teknikaria.
 Altsasuko Udala (Nafarroa).
 Aparejadore edo Arkitektu Tekniko titulazioa. Epea: urriak 16.
Mekaniko zerbitzaburua.
 Debabarreneko Mankomunitatea. LH 2. Goi batxilergo edo baliokidea; C2 gidatzeko baimena. Epea: urriak 7.

KARNETAK
 Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:
 BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
 Telefonoa: 943 77 91 57
 E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
 Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
 Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Inude, inure

Inoren haurrari titia ematen diona (aberats etxeko haurrari).



JOSU OKINA

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

San Juan auzoan

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Irailak 28, eguena	20 °C	14 °C	4,1 l/m ²
Irailak 29, eguakitza	20 °C	10 °C	2,6 l/m ²
Irailak 30, zapatua	17 °C	7 °C	28,1 l/m ²
Irailak 1, domeka	16 °C	11 °C	33,2 l/m ²
Irailak 2, astelehena	16 °C	12 °C	2,3 l/m ²
Irailak 3, martitzena	25 °C	10 °C	-
Irailak 4, eguaztena	25 °C	7 °C	7,6 l/m ²

Farmaziak

Eguakitza 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Zapatua 7:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Domeka 8:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Astelehena 9:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Martitzena 10:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 11:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguena 12:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

Domeka 8: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuen Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Sara Moreno
 6an 4 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Unai Yera
 11n urtebete.
 Urte askotarako!
 Gurasoak eta familiakoak.



Ainhoa Franco
 7an 5 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak eta Aitor.



Ibai Agirrezabal
 6an 3 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak eta Jone.



Kristina Etxeberria
 6an 6 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Aitziber Iturriaga
 11n urtebete.
 Urte askotarako!
 Gurasoak, Marina eta Alazne.




Pablo Cuevas
 6an urtebetetzea.
 Urte askotarako!
 Kafeko kuxkuxeroak.



Xabier Albizu
 7an 4 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



Josune
 Azkenean, karneta!
 Zorionak Fitipaldi!
 Ane.



Arantxa Jauregi
 11n 41 urte.
 Urte askotarako!
 Lagun bat.



Maite Azkargorta
 11n 39 urte.
 Urte askotarako!
 Lagun bat.



Fernan Jauregi
 9an 40 urte.
 Urte askotarako!
 Auskalo nor.



Maria Cid
8an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Joseba Elortza
6an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Urkia
6an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gotzon Barrenetxea-Arando
6an 77 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Altube
8an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Arritxu Barruso
11n 18 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Itziar Retes
12an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Hurrengo alean, urriaren 13tik 19ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.



Eider de La Roza
8an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eider Mendia
6an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Pili Hernandez
8an 40 baino gehiago.
Urte askotarako!
Hodei eta Aitzol.



Olaia Zengotitabengoa
9an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ahetze
6an 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maitane Garazi
10ean 9 urte.
Urte askotarako!
Ainhua eta etxeak.



Leire Mellado
8an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Asier.



Maria Aginagalde
9an 3 urte.
Urte askotarako!
Nerea eta Mikel.

jaiotakoak

BERGARA
Mikel Montiel Linzoin
Irailak 24
Maidar Mujika Larrañaga
Irailak 25
Ainhua Robledo Chorro
Irailak 27
Unai Asula Garcia
Irailak 28
ANTZUOLA
Irati Aranzabal Lamariano
Irailak 22
Jon Baleztena Azpeitia
Irailak 24

hildakoak

BERGARA
Teresa Gonzalez Segura
Irailak 30, 86 urte

425. alerako eskelak, urteurrenekoak eta eskertzak astelehen eguerdira arte hartuko ditugu.

URTEURRENA

Casimira Luarizaristi Iñarra

Lehen urteurreneko meza domekan, urriak 8, goizeko 11:30ean, Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felisa Rodriguez Carrasco

Lehen urteurreneko meza domekan, urriak 8, eguerdiko 13:00ean, Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Angeles Eguren Agirrezabal

Juan Luarizaristi Albisuaren alarguna

Bergaran hil zen 2000ko irailaren 26an, 81 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Maria Gloria Etxaniz Inza

Bergaran hil zen 2000ko irailaren 22an, 62 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.

ANTZERKIA

► **"El florido pensil"**, gaur, eguakitza, 22:30ean Elorrioko Arriola aretoan **Tanttaka** taldearekin.

MUSIKA

► **Easo abesbatzaren Kapera gregorianoaren kontzertua** bihar, zapatua, 19:30ean Monja Zaharretan. Doan.

► **Satanic surfers, All systems Go!** eta **Abraxas** taldeak domekan, 21:00etan, Jam aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Azur**-en argazkiak Infernukua tabernan.

► **Gipuzkoako zuhaitzen eta zuhaixken herbarioa** erakusketaren 15era arte Kultura Etxean. Erakusketarekin loturik, Jexux Lopez Irastorza biologoak "Sexua landareetan" izenburuko hitzaldia emango du gaur, eguakitza, 19:00etan Kultura Etxean.

► **Luis Etxeberriaren** oleoak eta sorginak Nahikarin.

LEHIAKETAK

► **Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bileran**

ANTZERKIA

Dama eta Kardinala

- Gaur, eguakitza, 22:30ean Novedadesen
- Novedades aretoan
- Sarrera: 1.000 pezeta. Langabetu eta 26 urtez azpikoek, 750 pezeta

Udazken Kulturalako programazioari hasiera emanez, Txalo produkzioak taldeak "Dama eta Kardinala" lana antzetzuko du, gaur gauean Novedadesen. Taldeak izugarrizko arrakasta lortu zuen "Xagutranpa" aurreko lanari esker. Izan ere, Agatha Christie idazlearen testuan oinarritutako lan hark, besteak beste, 1997-98 denboraldiko produkzio onenari zego-kion Ercilla saria irabazi zuen.

Gaur Bergaran antzetzuko duten lana Jacques Rampal autoreak idatzitakoa da eta Ane Gabarain eta Kandido Uranga aktore ezagunak ditugu komedia sentimental honetako protagonista nagusiak. Istoria XVII. mendean girotuta dago. *Altzeste* (Kandiko Uranga) mundu guztiari gorrotoa dion zoritxarreko gizona da, ia erretiraturik bizi dena, baina Kardinala izatean, oraindik ere izugarrizko boterea duena. Hogei urte igaro ondoren, *Zelimena* (Ane Gabarain) bere maitale ohiari bisita egingo dio eta burges batekin ezkondata dagoen 40 urteko emakume eder bat aurkituko du. Bi maiteminduen elkartze hone-

tan, betiereko zauria bailitzan, bizitza ikusteko eta sentimenduak azaltzeko duten desberdintasanak azalduko dira. Horrela, elkartzeak banatzearen zeremonia ikusteko aukera ematen digu eta hor agertuko dira euren arteko haserrealdiak eta gizon-emakumeei buruzko eztabaida filosofiko dibertigarriak ere, helburua ikusle-en adimenetik sortutako barrea lortzea delarik. Ramon Barea da lanaren zuzendaria eta musika Pascal Gaignek konposatu du.



Kandido Uranga eta Ane Gabarain aktoreak.

parte hartu nahi duten zinegile edo bideo sortzaileek lanak aurkezteko epea urriaren 15era arte zabalik izango dute. Euskaraz egindako lanak bakarrik aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Argibide gehiago jasotzeko deitu 94 684 12 21 zenbakira.

► **Gazteak eta Arrazakeria XI. Argazki Lehiaketa**, Debagoieneko 14-18 urte bitarteko gazteei eta 19-35 urte bitartekoei zuzenduta. Jorrratu beharreko gaia "gazteak eta arrazakeria" izango da. Lanak aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da. 943 77 00 65.

IKASTAROAK

► **Udaleko Gizarte Ongizate sailak** 18 urtetik gorakoentzat bi ikastaro martxan jarriko ditu: mekanika eta elektrizitatea batetik eta diseinu eta patroigintza beste-

ARRANO

Taberna
 Kruz Gallastegi BERGARA

Agirrebeña
JATETXEA

 Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
 Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

tik. Argibideak 943 76 91 24 edo 943 76 91 25 zenbakietan.

► **Hezkidetza** ikastaro teoriko praktikoa (hezitzaileei zuzendua) eta lan orientaziorako ikastaro lantegia, graduatu eskolarra edo lehen mailako ikasketak dituzten emakume langabetuei zuzenduta, urritik abendura bitartean, Arrasaten. Argibideak Arrasateko Udaleko Emakume Sailean, 943 79 41 39 zenbakian.

► **Pintura ikastaroak:** teknika eta gai ezberdinen arteko esperimentazioa. Ordu-tegi ezberdinak aukeran. Argibide gehiago eta izen-ematea 943 76 44 17 edo 696 577 495 (Usoa) telefonoetan. Bestalde, haurrentzako pintura eta marrazketa ikastaroak, 5-14 urte bitartekoei zuzenduta, zapatuetan 10:00etatik 13:00etara. Argibideak: 943 76 34 48 (Mayra) edo 696 577 945 (Usoa).

► **Moises Azpiazu** dantza taldeak helduei zuzendutako arin-arin eta fandango ikastaroari hasiera emango dio, bihar, zapatua, urriak 7. Saiok 11:00etatik 12:00etara izango dira Aranzadi Ikastolan. 943 76 15 40.

DEIAK

► **Bedelkarrek**, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, antolatutako hitzaldiak: urriaren 17an eta 18an "Bezeroaren ganako arreta", 14:15ean

Kultura Etxean. Urriaren 24an eta 25ean "Establezimenduen dekorazioa eta girotzea" ordu eta toki berean.

► **Gazte lokalaren** aldeko mugimenduak eguaztenero eta eguakitzero, 19:15ean, Kartzela zaharrea egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

KINTADAK

► **1948**an jaiotako afaria Txuringon irailaren 30ean, 21:30ean. Joateko eta etortzeko urbanoa egongo da. Izen-ematea Euskadiko Kutxan.

► **1961**an jaiotako afaria urriaren 7an. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Nahikarin edo Dixulan.

► **1962**an jaiotako afaria urriaren 21ean Erreki jatetxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, Frontoian elkartuko dira. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Errekin bertan.

► **1947**an jaiotako afaria urriaren 21ean Txuringon. Izen-ematea (6.500 pezeta) Euskadiko Kutxan urriaren 14a baino lehen. Osintxura joateko autobusa izango da, 20:30ean Santa Marina ondoan.

► **1978**an jaiotako afaria Mariaren Lagundian euskarazko taldean elkarrekin ibilitako afaria urriaren 28an. Izen-ematea urriaren 20ra arte zabalik Arrano tabernan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Año mariano

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Frequency

Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.

ARRASATE. Alai zinema

Gitano

Eguakitza: 22:00.

Evasion en la granja

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

X-men

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Titan

Zapatua: 17:00, 19:30,

Domeka: 17:00, 19:30.

Woman on top

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 22:15.

Domeka: 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Año mariano

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Buena Vista Social Club

Eguena: 20:00s.

OÑATI. Santana

El hombre sin sombra

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.



AÑO MARIANO

Zuzendaria: Fernando Guillen Cuervo eta Karra Elejalde.

Aktoreak: Karra Elejalde, Fernando Guillen Cuervo, Manuel Manquña. ▲ 13 URTE "Airbag" filmean elkarrekin lan egin ondoren, Karra Elejaldek eta Guillen Cuervo aktoreek idatzi, zuzendu eta protagonizatutako komedia eroa. Errepideetako tabernetan musika kaseteak saltzen dituen *Marianok* (Elejalde) Goardia Zibila erretzearen dagoen marihuana plantazio batean istripua izango du, ustekabeko ondorioekin.

FREQUENCY

Zuzendaria: Gregory Hoblit.

Aktoreak: Dennis Quaid, Jim Caviezel. ▲ 13 URTE Gure bizitzako gertakarien bat aldatzeko aukera izanez gero, *John Sullivan* (Jim Caviezel) polizia argi edukiko luke zer aldatu: 1969. urtera atzera egingo luke, *Frank* (Dennis Quaid) bere aitaren heriotza saihesteko. Suhiltzailea zela, istripu batean hil zen. Istripuaren 30. urteurrenaren bezperan, aitaren irati ekipoz zaharri esker, aita-semeak kontaktuan jarriko dira...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 🔧 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!



Tf. 943 76 16 63

Angiozarko auzo eskolak jaso du aurten Eskola Txikien jaia antolatzeko lekukoa. Ekainaren 10ean ospatuko da eskola txikien jai handia. Jada ari dira auzotarrak jaia prestatzen: kamiseta eta sudaderak atera dituzte dagoeneko.

G. Zenbat haur dituzue ikasturte berrian?

E. Hamar ume ditugu: bi eta hiru urteko bana Haur Hezkuntzan; hirugarren mailan bi daude; laugarren mailan bi eta bosgarren mailan beste bi. Aipatzekoa da, bi ikasle portugaldar daudela aurten, bost eta hamar urtekoak.

Irakasleei dagokienez, bi daude jardun osoan hasi berri dugun ikasturtean. Oso onuragarria izan da bigarren irakasle bat izatea. Urteetan aldarrikatu dugu delegazioan bigarren irakasle baten beharra, eta, aurten, eskatu gabe eman digute. Izan ere, eskola bakoitzean gutxienez bi irakasle egon behar direla erabaki du aurten delegazioak.

G. 2001 urtean Eskola Txikien jaia egingo da Angiozarren.

E. Bai. Eskola txikiok egiten dugun jaia da. Eskola handiek kilometroak, Ibilaldia... egiten dute; guk Eskola Txikien jaia deritzona. Gu ere euskal eskola publikoak gara, baina txikia. Euskal Herrian hogeita bost gaude horrelakoak, eta eskola handiek prestatzen dituztenak bezalako jaia egiten dugu urtero herri ezberdin baten. Azkena Albisturen izan da, eta datorren urtean hemen, Angiozarren.

G. Dagoeneko hasi zarete jaia prestatzen.

E. Ekainaren 10ean ospatuko da. Bi zatitan banatuko da: goizean, lehen ai-

MILA EGUREN

Angiozarko Eskola Txikiko Guraso taldekoa

“Angiozarrek bizirik iraun dezan, eskola txikia ezinbestekoa da”



Milak jaia prestatzen dihardu beste sei gurasorekin batera.

patutako hogeita bost eskola horietako bakoitzak aurrez prestatutako ekitaldi bat aurkeztuko du. Ostean, herri bazkaria izango da. Bigarren zatia arratsaldeko ekitaldiek osatuko dute: musika saio, artisau, bertso-lari, pailazo eta abarrek.

G. Auzo osoaren inplikazioa eskatuko du horrelako jai bat antolatzeak.

“Jaiaren leloak, ‘Eskola Txikiak bizirik. Herri txikiak bizirik’, gurea bezalako eskolen izatea biltzen du bere baitan”

E. Bai. Lan handia da. Aurrekontua bera ere ez da makala: bi milioi pezeta inguru, eta horri aurre egiteko hainbat gauza antolatu beharko ditugu urtean zehar. Dagoeneko kamisetak atera ditugu jaiaren leloarekin: “Eskola Txikiak bizirik. Herri txikiak bizirik”.

G. Zein da jaiaren helburua?

E. Eskola txikiak ezagutzera ematea hein handi batean. Garen moduko txikiak izateagatik jende askok existitzen dugunik ere ez daki. Eta hori Euskal Herrian orohar gertatzen da. Eskola handiekin batera galduta ikusten genuen txikiok geure burua. Geure arazoak ez dira eskola handienak bezalakoak; irakasleri eta ikasleriak ere ohitura ezberdinak ditugu. Hori horrela izanik, gure egoera bereziari irtenbidea aurkitzeko eskola txikiok biltzeko beharra izan genuen. Eta noski ezagutzera ematekoa. Horretarako da aipatu jaia.

G. Jaiaren leloak dio herri txikiak bizirik jarraituko badu, eskola txikiak bizirik iraun behar duela.

E. Hori da gure planteamendu garrantzitsuenetakoa. Denbora eta inguruak erakutsi digu, herri edo auzo txiki batetik eskola desagertzeak, herri edo auzoa bera hiltzera daramala; herriak nortasuna galtzen du eta bizitza. Hori horrela izanik, ikusi dugu herri edo Angiozarren kasuan auzoa bizirik mantentzeko eskola ezinbestekoa dela. Hauxe da jaia antolatzeko beste arrazoi bat. Jaiaren bidez, jendea orain aipatu dugun arrazoi garrantzitsu horrekin jabetzea nahi dugu. Angiozarko auzotarrak neurri handi batean konziente dira horretaz. Baina Angiozar baino harantzago heldu nahi dugu.


Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25



82 urte egin dugu
 bergararron zerbitzura. Orain, denda
 goitik behera berriztu
 dugu beste urte askoan ere mertzeria
 gaietan behar duzun dena izan dezazun.
Zatoz bisita egitera!



Urriaren 9tik 15erako astea

Agirre
 Jantzidendan

%10eko
 deskontua
 gai
 denetan



AGIRRE JANTZIDENDA 943 76 72 67 Bidekurutzeta 18

Elkarlanerako hitzarmena Udalak eta Mondragon Unibertsitateak

Hitzarmena eguazten eguerdian sinatu zen. Horren arabera, Hizkuntzen Psikopedagogiako ikasketak burutzen ari diren ikasleek bekadun jarduteko aukera izango dute Udalean.



Victoriano Gallastegi eta Jesus Garmendia hitzarmena sinatzeko unean.

Hitzarmena sinatzeko ekitaldian, Jesus Garmendia, MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko dekanoa, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Estepan Plazaola Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuko arduraduna izan ziren.

Elkarlanerako hitzarmen horren ondorioz, Mondragon Unibertsitateak sortu berri duen Hiz-

kuntzen Psikopedagogiako goi mailako bigarren zikloko ikasleek, Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan bekadun jarduteko aukera izango dute euren

formazioa osatzeko bidean.

Jesus Garmendiak sinatze ekitaldian esandakoaren arabera, hitzarmenak bi helburu nagusi ditu: batetik, eskolako teoria egu-

neroko jardueran frogatzeko aukera ematea ikasleei, bide batez "gestio mundua hurbiletik biziz"; bestetik, ikasketak ordaintzeko lan egin behar duten ikasleei, ikasketekin lotura duen lana egiteko aukera eskaintzea.

Aurten, 9 ikaslek egingo dituzte praktikak, horietako batek Bergaran. Gainerakoek, Arrasate eta Aretxabaletako Udaletan eta hitzarmena sinatu duten beste erakunde batzuetan jardungo dute.

Victoriano Gallastegi alkatearen arabera, hitzarmena "oso positiboa da", eta, aurrera begira, "Murekin lanean jarraitzeko bidea irekiko du".

Bihar, zapatua, irekiko da Kartzela Zaharreko asteburu- etako aisialdi gunea

Bihar, zapatua, irekiko du berriz Jardunek Kartzela Zaharra hamaika urtetik gorako neska-mutikoendako. Azken bost urteotan hainbat gaztetxok euskara erabiliz asteburu- a igaroteko aisialdi gunea bilakatu da Kartzela Zaharra. Aurten, maiatzera arte, eskaintza bera luzatuko du Jardunek.

Zapatu eta domeketan 16:00etatik 20:00etara eskulanak, jolasak, asteburuko irteerak eta beste hainbat gauza egiteko aukera izango dute neska-mutikoek.

I. OLINPIADAK

Ikasturtea bi ataletan banatuko da: lehenengoa, otsai-



Aisialdi gunean parte hartzeko Jardunen eman behar da izena.

ARTXIBOA

lera arte, Kartzela barruko ekintzetan eta asteburuko irteeretan oinarrituko da. Bigarrenak, martxotik maiatz amaiera arte iraungo du. Zapatuetan kartzela ba-

ruruko ekintzak egingo dituzte neska-mutikoek eta domeketan kalera aterako dira. Izan ere, aurten lehenengo aldiz, Gaztetxoendako I. Olinpiadak antolatu di-

tu Jardunek bi arrazoi nagusigatik: batetik, martxoan eguraldiak hobera egiten duenez kalean jolasteko aukera izan dezaten neska-mutikoek; bestetik, izena eman ez duten gaztetxoek jolasteko aukera izan dezaten.

Ekintza hauek guztiak aurrera eramateko, sei begirale egingo dira gaztetxo- en kargu; hiru asteburu bakoitzeko.

Aisialdi gunean parte hartzeko, Jardunek Kartzela Zaharrean duen egoitzan eman behar da izena. Horretarako, karneteko bi argazki eta 3.400 pezetako kuota ordainduko da.

Udalbiltzarekiko konpromisoa berretsi dute EHko zinegotziek

Bergarako Udaleko EH taldeko zinegotziak Iruñean izan ziren joan zen zapatuan Udalbiltza sustatzeko asmoz egindako hautetsien bileran. EAJ eta EAKo zinegotziek uko egin zioten joateko gonbiteari. Batzarrera hurbildutako 550 hautetsiek, orain urtebete Udalbiltzaren sorreran hartutako konpromisoa berretsi zuten. Helburua, Udalbiltzak berak markatutako ildoak kontuan harturik, Euskal Herriko eraikuntza nazionala burutzeko beharrezkoak diren urratsak ematen hastea da. Horretarako hamaika arlo lantzea onartu zuten: euska-



Joan den zapatuan 550 hautetsi bildu ziren Iruñean.

JOXE LACALLE

ra, kultura, kirola eta irakas-kuntza, eta abar. Arlo bakoitzerako lan taldea ere osatu zen. Bestalde, Bergarako

Udalak onartu egin du aste honetan Udalbiltzari ordaindu beharreko bi milioi eta erdi pezetako kuota.

Mikel Zubimendi epaitu egingo dute

Mikel Zubimendi epaituko dute Parisen hilaren 9tik 11ra bitartean. 1999ko martxoaren 9an atxilotu zuten Parisen lau lagunekin batera. Poliziak ETKo kidea izatea leporatu zion. Epaketara joateko autobusak antolatu dira Bergaratik. Izena emateko, Arranora jo behar da.



Ehungintza sustatzeko manifestazioa egin du ELAk



ELA sindikatuak deituta, hainbat lagunek manifestazioa eta ondoren kontzentrazioa egin zuten joan zen eguakitz eguerdian San Martin plazan. Helburua, ehungintzaren sustapena errebindikatzea izan zen. Horren aurretik, Debagoieneko ELAko delegatuek bilera izan zuten Bergaran. Bilera hainbat sektoretan 2001. urteko negoziaketa kolektibo koordinatua bultzatzeko egin zuten.


Bestalde, Bergarako ehungintzak, Konbenioaz gain, bere presentzia eta bizinahia baiezteko beharra duela uste du ELAk. Horregatik, bilera eta gero manifestazioa eta kontzentrazioa egin ziren. Argazkian ikus daitekeen bezala, bi pankarta erakutsi zituzten ELAkoek: bata ehungintzarako konponbidea eskatuz, eta bestea datorren urteko lan hitzarmenaren gainekoa.

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Berrigara

424 zenbakia.
2000ko urriaren 6a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Iban Arantxabal.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihán Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

BERE LOGIKAK EZ DU LOGIKARIK

Komeni denean "aurre-
rapenaren" aitzakiz langile-
oi lurak desjabetzen dizki-
guzue eta errepide eta pase-
alekuak eraikitzen dituzue.
Udal hauteskundeak ziren
eta Poligonoaren urbaniza-
zioaren bigarren fasearekin
azkar bukatu behar zen. Bo-
toak?

Desjabetzepepetan, ja-
beari (kasu honetan jabe)ei
kontrapartida bat ematen
zaie, dirua edo beste or-
dainpide mota bat.

Promesak... baina ezer
izenpetzen ez bada hitzak
haizeak daramatza, ezta?

Hilerriaren eta gure
etxearen artean errepidea
eta pasealekua egiteko be-
har ziren lurren ordainketan
diruaren ordezkari alkate jau-
nak agindu zuen Udalak
hartuko zuela bere gain az-
piegitura eta materiala, bai-
men eta planoen ordainke-
ta; auzokook arduratuko gi-
nen auzoa txukuntzeaz.
Akordio honetara hiru auzo-
ko eta alkatea heldu ginen.

Gaur egun, urte batzuen
ondoren, presaka egindako
gauza guztiak bezala, txa-
puza arriskutsu bat, batez
ere ume eta adineko pertso-
nentzat, ikusi nahi gabe ja-
rraitzen dute. Txapuza hau,
hain zuzen ere, desjabetu
diguzuen lurren mugan da-
go. 38 cm.tik metro baterai-
noko desnibela duen koska
inolako babesik gabe. Hain
zuzen ere, 16 m. linealeko
80 cm.ko desnibela (gure
etxe eta pasealekuen arteko
limitea), gaizki erori ezke-
ro hiltzeko modukoa. Pertso-
na bat baino gehiago erori dela
jakinean nago, suertez on-
doriorik gabe.

Irailaren 20an, Udaletxe-
ak eserleku zaharrak berri-
ngatik aldatzea erabaki
zuen; partikularrek beraien-
tzat eraman behar zituztela
jakitean, guk birziklatzea
erabaki genuen, gure lurren-
tan zeudenak behintzat, eta
hiru eserlekuak auzoan sar-
tu genituen (ez zuten ezta
bi ordu ere iraun). Beste au-
zoko batek brigadaren eto-
rriera espero zuen beste bi

eserleku, oraindik lurrean
lotuta zeudenak, eskatzeko.
Orduan San Josek, brigada-
ko nagusiak, esan zuen era-
man egin behar zituztela
berriak jartzeko. Niri beste
gauza bat esan zitzaidan,
ezta?

Desjabetutako lur ba-
tzuengatik zergak ordain-
tzen baditugu (pasealeku
eta errepidea). Non daude
ordainak? Zergatik ordaindu
behar ditugu zirkulazio or-
dainak eskupeko? Hain
gaizki egin zenuten, orain
gure lurak ematea nahi du-
zutela? Halako gorrotoa di-
guzue, dezente samar geldi-
tzen diren dozena erdi eser-
leku eramaten dituzuela?
Partikularrei emateko? Laro-
geitamar auzokidek ez du-
gu ezer balio, baina "edo-
zeinek" eraman ditzake? Be-
tikoenzat dena. Ezer ez he-
rriarentzat.

Roman Basterra

tira biraka bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Kotxia bihar baiño gehixago erabiltzen dogula uste dozu?



Luis Alvarez

Lanera kotxian juten naiz, biharrezkua daukat eta. Dana dala, bestela be bihar baiño gehixago erabiltzen dot, nagikerixiagatik.



Iñaki Leturia

Bai, gehixegi; inguruko auzuetatik jende guztia kotxian etortzen da. Neuk be uste dot gehixegi erabiltzen dotela, erosotasunagaittik.



Iñaki Marzan

Normala da gaur egun kotxia asko erabiltzia, beti prisaka gabitz-eta. Baiña bihar ez danian be erabiltzen dogu erosotasunagaittik.



Maria Martinez

Bai, jende asko dago erosotasuna billatzen dabena. Baiña nik neuk ez dot gehixegi erabiltzen, asko gustatzen jat ibiltzia.



Ana Mendinueta

Bai, danok be gehixegi erabiltzen dogu kotxia. Ogixa erostera juteko be kotxia hartzen dogu; gehixago ibili biharko giñake.



Eulalia Garitano

Nik ez behintzat, ez daukat eta kotxerik. Jendiak bai, lehengo aldian asko; batzuk azkartasunagaittik eta beste batzuk txulerixiagaittik.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

ARTEKALEA ITXITA BEHIN ETA BERRIZ

Juan Garciak deitu digu aste honetan BERRIGARA-ko erredakziora. Artekalea behin eta berriz trafikorako itxita egoteagatik protesta egin nahi du Juanek. Abuztu hasieran itxi zuten kalea eta oraindik ere itxita egotea ez zaio normala iruditzen. Antza denez, kalea ixteko arrazoia, zoruko arketa berriak jartzea izan zen eta badirudi San Pedroko karpandorrearen egoera kaskarrak ere zerikusia izan duela erabakia hartzeko orduan. Horren ondorioz, berriro ere Artekaleko komertziantek izan dira kaltetuenak, azken urteotan kale horri gero eta arreta gutxiago eskaini baitzaio Juanen iritziz. Kalea ahal den moduan bizitu eta trafiko mozketak behin betiko konpontzea eskatu nahi du.

Astebukaeretan eztakizula zer eiñ?

11 urte baino gehixau baldin badaukazu,
kartzela zaharrian primerako aukeria daukazu. Zatoz!

Zapatu eta domeketan
arratsaldeko 4retatik 8retara

antolatzailea:



943 76 36 61

Aurten sorpresak
egongo die!



adituen esanetan

Gripearen aurkako txertoa

Gripea oso gaitz kutsakorra da, azkar barreiatzen dena gainera. Udazkenaren amaieratik negu hasiera bitartean izaten dira kasu gehienak. Sintomak jakinekoak dira: sukar altua, buruko mina, artikulazioetako eta muskuluetako mina, rinorrea (mukiak), eztarriko mina eta eztula. Birusak pertsona gazte eta osasuntsuei afektatzen dienean, ez du arazo larririk ekartzen. Ohean atsendena hartu, hidratazio on bat eta tenperatura jaisteko analgesikoak (aspirina, termalgina...)

hartzea nahikoa izaten da gripea gaintzeko. Bestalde, 65 urtetik gorakoek edo osasun arazoak dituzten pertsona gazteagoek, gripearen erruz, arazoak izan ditzakete, arazo larriak zenbaitean. Kolektibo honentzat txertoa gutziz gomendagarria da.

Prebentzioari dagokionez, alde batetik neurri higienikoak aipatu behar dira. Doministikuekin eta babesik gabeko eztularekin kontuz ibili behar gara, gripea erraz kutsatzen delako. Bestalde, txertoak ez du infekzioa kasu gutzietan saihesten baina gaisotasunaren intentsitatea eta konplikazioak murrizten ditu. 65 urtetik gorako pertsonen eta gaisotasun kronikoak (bronkitisa, diabetesa eta bihotzeko, gibekeko edo giltzurrunetako gaisotasunak adibidez) dituzten 65 urtetik beherakoei ere txertoa gomendatzen zaie. Era berean, gri-



RICARDO PAGOAGA

Medikua

"65 urtetik gorakoek edo osasun arazoak dituzten gazteagoek, gripearen erruz, arazoak izan ditzakete.

Txertoa gutziz gomendagarria da"

pea transmititzeko arriskua duten pertsonen ere (osasun zerbitzuetan lan egiten dutenek, adibidez) txertoa hartu beharko lukete, gaitza jasotzeko arrisku handia duen jendearekin lanean ari direlako. Efektu sekundarioak garrantzi txikikoak dira; molestiak injekzioa hartu dugun tokian edo pare bat egunetan desagertzen diren sintomak: buruko mina, hotzikarak...

Arrautzaren proteinari alergia diotenek, sukarra dutenek eta arnaseko infekzio zorrotzak (faringistisa, neumonia, adibidez) dituztenek, berriz, ezin dute txertoa hartu. Gaur egun, gripearen eragina handiagoa da pertsona gazteetan zaharretan baino, edadetuek txertoa hartzen dutelako. Gripearen kontrako kanpainak urriaren bukaerara arte iraungo du eta aipatutako kasuetan oso garrantzitsua da txertoa hartzea.



Gazteek ez dute arazo handirik izaten gripea gaintzeko. ARTXIBOA

bergarako errotak

LESARRI-BOLU (I)

Francisco Alberdi Alberdi (33 urtekoa, errotaria), Jose Albisu Gantxegi (78 urtekoa, nekazaria) eta Jose Albisu Mekolalde (50 urtekoa, nekazaria) bizi ziren Lesarrin, 1890eko errolda ofizialak dioenez. Lesarriko boluan, ostera, Jose Martin Narbaiza Lamaiano (71 urtekoa, zerbitzaria) eta Pedro Villar Telleria (71 urtekoa, errotaria).

1895ean Pedro Villar zegoen errotari Lesarri-Bolun.

1918ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak honako hau dio:

"Francisco Alberdi jaun bergararrak, Lesarriko boluaren jabe denak, baime-na eskatzen du urmaelaren maila 45 cm igotzeko.

Presak 34 m dauka, eta 2 metroko 17 zatitan banatuta geratuko da. Zatiok urak gora egindakoan automatikoki biratuko diren obolez osatuak egongo dira..."

Hurrengo urteko aldizkarian eman egin zitzaion horretarako baimena.

Urte batzuk geroago, 1921eko G.A.O.ean, Sociedad Artecheko Hnos.en izenean ageri da bolua, eta 1922an baimena eman zioten beste kanal bat egiteko.

Antxon Agirre Sorondo



Luisa Agirrezabalek 104 urte

Luisa Agirrezabal bergararrak **104 urte** beteko ditu astelehenean, **urriaren 9an**. Osasunez primeran dago eta bakarrik bizitzen jarraitzen du, San Pedro kalean. Bere eguna ospatzeko senideekin batera bazkaria izango du domekan, 30 bat lagunekin. **Aurea Agirrezabal**, Luisaren ahizpetako batek **96 urte** egin zituen urriaren 3an, eta Aurearekin batera bizi den beste ahizpak, **Elisabetek, 81 urte dauzka**. Hiruren artean, 281 urte batzen dituzte. Hori marka hori! Zorionik beroenak hirurei eta bereziki Luisari 104 urtera hain osasuntsu heltzearren.

Kirol argazkiei sariak



Kirol Argazkien X. Lehiaketako sari banaketa egin zen eguakitzean Kultura Etxean. Argazkian, ezkerretik eskumara, **Iñaki Ugarte-buru** kirol teknikaria, **Mikel Zengotita** azkoitiarra (2. saria koloretan), **Nere Amaia Zabala** kirol zinegotzia, **Agustin Gurrutxaga** (3. saria zuribeltzean eta herriko onena koloretan), **Benito Cantero** (3.a koloretan eta herriko onena zuribeltzean) eta **Jose Juan Gurrutxaga** (koloretan lehen saria eta zuribeltzean 2.a). Sarituek **Tere Guenetxearen eskultura** bana eta diru saria jaso zuten.




Urrezko ezteiak

Jose Beitiak eta Mari Kruz Iurretak ezkondu zireneko urrezko ezteiak ospatu zituzten joan zen zapatuan. **1950ko urriaren 7an ezkondu ziren** Santa Marinan baina astebete aurreratu zuten ospakizuna. Arantzazun meza entzun ondoren, senideekin bazkaria izan zuten. Zorionak!

Mariaren Lagundiakoen bisita

Mariaren Lagundia Ikastolako 6. mailako ikasleak bisitari izan ditugu aste honetan BERRIGARAKO erredakzioan. Hezkuntza ikasgaien komunikabideak aztertzen ari dira eta, **Maria Angeles Olaizola** eta **Eli Ugarte** irakasleen laguntzaz, BERRIGARA zela lantzen dugun jakiteko hur-bildu zitzaizkigun. Zintzo-zintzo apunteak hartu ondoren, laister beraiek ere aldizkari bat kaleratuko dutela adierazi zigten.



Gasolioaren prezioa gora eta gora

Urte eta erdian %38 garestitu da gasolioa

Azkenengo urteetan zeresan asko eman du gasoilaren eta gasolinaren prezioaren kontuak. Denongan eragiten duen gaia da, baina euren lanean egunero gasoila edo gasolina erabiltzen dutenek arazo handiagoak izaten dituzte. Komunikabide guztiak bete zaizkigu egun hauetan kamioilarien, arrantzaleen edota nekazarien greba eta mobilizazioen irudiz. Guk, bertatik bertara ezagutu nahi izan dugu Bergarako hainbat langilek nola bizi duten egoera hau.

Aspalditik datorren arazoa da gasoilaren prezioarena. Eta, batez ere, garraiolari, arrantzale eta nekazariei eragiten dien arazoa da. Egun hauetan hainbat mobilizazio, kale bilkura eta errepede mozketak ikusi ahal izan dugu telebistan zein bestelako komunikabideetan. Patronalak, astelehenean hasi eta hiru eguneko lanuztea konbokatu zuen; autonomoek, aldiz, greba mugagabea.

Bergaran ez dago arrantzalerik, baina bai egunero-egunero kilometro mordoak egitea tokatzen zaion langilerik. Guk beraien ikuspuntua islatu nahi izan dugu, gertutik bizi baitute arazo hau.

JABI ROMAN Bilbo garraioak

Ez genuen arazo handiegirik izan Jabirekin harremanetan jarri eta hitzordua jartzeko. Izan ere, greban dago as-

telehenaz geroztik garraiolarien deialdiari jarraituz.


Jabi Roman Bilboko errekadista da. Makina bat buelta egiten du Bilbotik. Berak esan digunez, egunean 300 kilometro inguru egin behar izaten ditu bere furgonetan. Horrek 4.000 pezeta inguruko kostua suposatzen du.

Jabiren esanetan, "merezi du grebara ateratzea; greba, azken batean, prezio bide bat da, garraioa geldituz gerodena gelditzen baita". Gobernua preionatzeko bidea da, beraz, greba hau. Izan ere, Gobernua ikusten du egoera honen arduradunetako bat: "prezioak ezartzen dituen ez den arren, paper garrantzitsua betetzen du kontu honetan, bera baita zergak ezartzen dituen. Kontuan hartu behar da gasoil litro bakoitzeko ordaintzen dugunaren erdia baino gehiago Estatuarentzat dela, hau da, zergak direla".


Dena dela, arrantzaleen eta kamioi handiekin, trailerrekin, ibiltzen direnen egoera ere eta okerragoa dela deritzo Jabi: "nahiz eta, trailerren kasuan, garraioaren irabaziak handiagoak izan, gasoilaren igoerak eragin handiagoa du eurengan, kostuak izugarri igotzen baitzaizkie".

Gaur egun pil-pilean dagoen arazoa den arren, ez ei da garraiolarien arazo bakarra. Jabik dioskunez, "ez da daukagun arazo bakarra, eta ez dakit larriena den ere. Hamaika arazo daukagu garraiolariok; esaterako, ez digute baja-

Prezioaren igoera



Gipuzkoako garraiolarien sindikatuak, SINTRAGIK, BERRIGARARI eman dizkion datuen arabera, urte eta erdian honela igo da gasoilaren prezioa, %38 hain zuzen ere. Prezio horren %16 BEZari dagokiona da, eta eta litro bakoitzeko 44,9 pezeta, berriz, hidrokarburoei dagokien zerga bereziarena. Guztira, prezioaren %61,5 zergei dagokiena da.



Jabi Roman



Marife Muñoz

rik errekonozitzen gaisotasun profesionalengatik, aseguru etxeak ere gehiegikeria asko egiten ari dira gurekin...".

Egoera honi zer irtenbide ikusten dion galdetzerakoan, argi dauka Jabik Gobernuak lehenbailehen egin behar duela zerbait. Esaterako, "profesionalendako prezio bereziak jarri, zergak murriztu edota bonifikazio fiskalen bat eduki beharko genukeela iruditzen zait niri".

MARIFE MUÑOZ Araba autobusak

Hamar urte darama Marifek berelantzean. Araba autobusetan, gaur egun, zazpi autobus dituzte, bost autobus handi eta bi mikrobus, hain zuzen ere. Urtean 1.200.000 pezetaño gastua izaten dute gutxi gorabehera gasoliotan. Mariferen iritziz, "Gobernuaren esku dago arazo honi irtenbide bat bilatzea; kontuan hartuta prezioaren %60a baino gehiago zergei dagokiela, hori

gehiagikeria hutsa da... euren esku ez badago, zeinen esku dago, bada?"

Momentuz taxista, merkantzien garrario, nekazaritza eta arrantzan konbokatatu da greba; autobuszaleek ez dute, oraingoz, grebarik planteatu. Marife Muñozen ustez, "grebara joateko erabakia beste bide guztiak agortu diren harten den erabakia da, oso harapatuta sentituko dira sektore hauek grebara ateratzeko. Gainera, autobuszaleen grebak ez lioke prezio handiegi-

Dendetako apalategietan hutsuneak

Bergarako komertzio eta supermerkatuetan ere nabaria izan da grebaren ondorioa. Izan ere, garraiolarien grebak hainbat produkturen eskasia kasu batzuetan, eta gabezia, beste batzuetan, eragin du herriko dendetan. Hala ere, hainbat dendarik BERRIGARARI azaldu diotenez, egoera hau aurreikusita, normalean baino gehiago almatzen zuten pasaden astean, eguaztenera arte, behintzat, ez da arazo larriegirik izan. Erosleek ere, grebaren ondorio posibleak aurreikusirik, ohi baino erosketa gehiago egin dute; oinarrizko produk-

tuak erosi dituzte batez ere: olio, esnea, ura, moldeko ogia...

Arrantzaleen grebak ere arazoak sortu ditu, domekatik aurrera greba egin baitute, eta Bergarako arraindegietan nabari izan da hori. Arraindegiren batzutan dagoeneko ez dago arrain freskorik.

Gainera, nahiz eta patronalak deitutako hiru eguneko greba eguaztenean amaitu, garraiolari autonomoek lanuzte mugagabe jarraitzen dute, eta datorren astera begira ere sortu daiteke era honetako arazorik.



Gasolindegian esan digutenaren arabera, joan zen asteke eguenean eta eguakitzean, grebaren beldurrez edo, sekulako

kotxe pila etorri zen depositoa betetzera. Oraindik baduten arren gasolina nahikoa, apenas geratzen zaie gasoliorik.

rik egingo Gobernuari". Marifek hala azaltzen du bere ikuspuntua: "izan ere, garraiolarien greba batek herrialde guztia geldiarazten du, baina autobuszaleek greba eginez gero, ondorioak ez lirateke hain larriak izango".


Arazo larritzat jotzen du gasolioarena Marifek, baina euren sektorearen arazorik larriena kompetentziarena ei da.

Irtenbideari dagokionean, "sektore hauentzat guztientzat prezio bereziak jarri beharko lirakeela iruditzen zait; badakit jende guztiak duela gasolioa merkeago izateko eskubidea, baina uste dut gure egoera larriagoa dela, berezia dela". Bestalde, proposamen edota irtenbide berri bat ere planteatu digu Marifek: "Gobernuak energia berriztagarrien teknologiaren garapena gehiago bultzatu beharko luke".

INAZIO GALLASTEGI
Komertziala

Inaziok hogeitaz hamar urte darama komertzial lanetan. Kilometro asko egin behar izan du bere lanbidea dela eta. Hala ere, gaur egun, gero eta gutxiago egiten du, asko aldatu baita bere esanetan komertzialen lan egiteko era. Gaur egun dendariak izaten dira mugitzen direnak, eta bera, berriz, ez lehen beste. Hala eta guztiz ere, kilometro asko egin behar izaten du Gallastegik, eta berak dioskunez, igoera hauek asko igartzen dira hilabete amaieran.

"Gobernuak, petroliferek eta herrialde ekoizleek dute honen ardura. Petrolifera eta ekoizleek ez dute atzera egingo. Beraz, gobernuak zerbait egin beharko luke, irtenbidea bilatu: fiskalitate aldetik edo zergen aldetik profesionalak bonifikatu..."<



Inazio Gallastegi



Baserritarrak

MAITE ARISTEGI
EHNE

Kontuan izan behar da baserriko gasolioaren prezioa 40 pezetakoa izatetik 82ra iritsi dela urtebetean. Baserritarren egoera berez ere larria dela kontuan hartuta, are eta larriagoa da gure sektorearen egoera. Ikusi besterik ez dago, beste sektoreekin konparatuz, baserritarren errenta %55ekoa dela. Horri baserriko produktuen prezioaren batzbesteko %8ko jaitsiera gehitzen baldin badiogu, pentsa. Beraz, garestitze hau kolpe gogorra izan da oso.

Gai honetan, Gobernu zentralak du kompetentzia. Petroliferak akordio ilegal eta monopolistak egin dituzte, eta nik uste dut, Estatuak hor eskua sartu beharko lukeela. Bestetik, guk eskatzen duguna prezio profesional bat da, 40 pezeta ingurukoa edo. Gobernuaren jarrera ikusita, geratzen zaigun aukera bakarra mobilizazioekin aurrera jarraitzea da.

Gai honetan, Gobernu zentralak du kompetentzia. Petroliferak akordio ilegal eta monopolistak egin dituzte, eta nik uste dut, Estatuak hor eskua sartu beharko lukeela. Bestetik, guk eskatzen duguna prezio profesional bat da, 40 pezeta ingurukoa edo. Gobernuaren jarrera ikusita, geratzen zaigun aukera bakarra mobilizazioekin aurrera jarraitzea da.

"Gobernuaren jarrera ikusita, mobilizazioekin aurrera jarraituko dugu"



Garraiolariak

ESTEBAN MURUAMENDIARAZ
SINTRAGIko idazkaria

Gaur, eguaztena, "akordio" batera iritsi dira patronala eta administrazioa. Guk ez dugu akordiorik sinatu nahi izan, ez gaudelako ados bertan erabakitakoarekin. Argi daukagu antzerki bat izan dela, eta hasieratik zekitela akordio hori sinatu eta patronalak greba deskonbokatuko zuela, duela hilabete batzuk gertatu zen antzera. Guk, berriz, garraiolari autonomoak, greba mugagabearekin jarraituko dugu, sinatu dutena "declaracion de intenciones" bat besterik ez baita: "Saiatuko gara, ikusiko dugu zer irtenbide topatu..."

Gainera, gasolioarena gure sektorearen arazo bat gehiago da. Hala ere, duda barik, oso da arazo larria. Bide honetatik jarraituz gero, garraiolariok bazkaltzeko izan beharrean, gasoliotarako laga beharko dugu diru hori. Kamioi handi batek iaiztik hona 150.000 pezeta inguru gehiago gastatzen du gasoliotan, hortik kontuak ateratu.

"Laster, bazkaldu beharrean, gasoliotarako laga beharko dugu diru hori"

Afariak ematen ditugu

"Txanbolintxerokua"

BAP LA VNION

Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

☎ 943 76 20 61

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarrea, **ANTZUOLA**. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 65. zenbakia. 2000 ko urriaren 6a.

Ika-mikak sortu dituen errepidea


Beasain-Durango eztabaidagai Mankomunitatea eta Diputazioaren artean

Beasain-Durango errepideak ez du Antzuolan lotura osoa aurreikusten. Horren aurrean, Antzuolako Udalak, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera, hainbat xehetasun agertu zizkion Gipuzkoako Diputazioari. Honek, ordea, arazoa luzatu baino ez du egin. Orain, beste idatzi bat bidali dio Mankomunitateak Diputazioko errepide sailari.

Antzuolak 2.000 biztanle dituen herria dela eta ia egunero 170 kamioi herrira sartzeko direla azaldu zion Diputazioari; bai eta 664 langile etortzen direla kanpotik egunero. Mankomunitateak dioenez, Diputazioaren proiektuak Antzuolako herria gehiago isolatzea ekarriko luke; eta adibide bat jartzearen garraio publikoa aipatzen zen. Izan ere, orain zerbitzua txikia bada, errepide planak ez badu bi norabide-etako lotura aurreikusten, horrek arazoa ekarriko litzieke autobus eta antzekoei. Udalak, Antzuolarentzat lotura osoa eskatu du, Beasain-Durango errepidean. Hasierako proiektuaren arabera, antzuolarrak, Bergarara joan beharko dira autobidea Zumarraga aldera hartzeko.

ERANTZUN EZKORRA

Debagoieneko Mankomunitateak jaso du Diputazioaren erantzuna. Mireia Unamunok esan digunez, ordea "erantzuna oso eskasa izan da. Etorkizunari buruzari da; Diputazioan gure azalpenak, alegazioak bailira ulertu dituzte eta horren aurka jo dute, gure azalpenak arrazoitu barik. Guk 2004. urterako lanak amaitu izatea eta Antzuolan lotura osoa egitea eskatzen genuen; izan ere, gure bailararako Eibar-Gasteiz errepidea baino garrantzitsuagoa da Beasain-Durango".



Bergararik Bergarara lotura ez du aurreikusten Beasain-Durango errepideak

Debagoieneko Mankomunitateak beste idatzi bat aurkeztu du Diputazioan eta "gure bailara baztertuta dagoela azaldu diegu berriz ere. Euren proiektuan, Antzuolatik eta Epeleraino (Arrasate) 4 karriletako errepidea ez da egingo; zati horretan 2 karril eta garraio geldoentzako beste bat tarteka aurreikusten da".

PROIEKTUA

Errepidearen ibilbideak Deskargako mendatea zeharkatuko lukeen tunela

aurreikusten du eta gero, Deskarga gainetik Antzuolaraino errepidea ia zuzen joango litzateke. Tarte horretan, 3 edo 4 korridore izango litzateke eta gaur egungo 632 errepidearekin lotura osoa, Irimo-Behean izango luke.

Ondoko argazkian ikusten denez, Zumarragatik Antzuolara eta alderantziz loturak badaude. Bergararik eta Bergarara, berriz, ez; eta horixe da Antzuolako Udalak eskatzen duena: lotura hori, lotura osoa izan dadila. ■

AKEko nesken eta mutilen futbol taldeek denboraldia hasi dute

Neskek aurten dihardute lehen aldiz bailarako futbol ligan

AKEk 2. erregional mailako futbol taldeak hasi du dagoeneko denboraldi berria. Herriko talde nagusian 22 kidek jokatzen dute; Alberto Gullon, Iker Irizar, Andoni Elkoro bergararra, Unai Gezalaga, Juan Pedro Jurado, Ion Arregi eta Xabier Azkarate dira taldeko atezainak. Erdilariak Ibon Segurola, Aitor Berraondo, Mikel Jauregi, Luis Herzog, Ibai Azkarate eta Ion Aranguren. Atzean Gurutz Zabalo, Eneko Iturbek, Pedro Iturbek zumaragarak, eta Eneko Segurolak jokatzen dute. Aurrean berriz, Xabier Arregi, Bergarako Joseba Larrañaga, Samuel Cuevas, Aitor Gabilondo eta Uraitz Garcia. Entrenatzailea Andoni Azkargorta da, eta laguntzailea Igor Larrea. Prestatzaile fisikoa Gotzon Del Teso da. Taldeko delegatua, Alonso Castro.

Lehen jardunaldian 2-0 irabazi zieten bergararrei, baina joan zen domekan Eibartarrak-en aurka galdu egin zuten 6-1.

NESKAK

Nesken taldeak ere hasi du bere denboraldia. 22 lagun dira eta entrenatzailea Arantzazu Kortabarria da: Olaia Alberdi, Alazne Aldalur, Iratxe Azkargorta, Irati Berraondo, Amaia Irazabal, Larraitz Berraondo, Iraia Gabilondo, Agurtze Inza, Nerea Barkero, Edurne Iturbe, Cristina Longares, Oihana Iñurrategi, Amaia Narbaiza, Enara Agirre, Esther Reinoso, Maria Jesus Rios, Arrate Aranguren, Maider Martin eta Itziar Jauregi.

Denboraldiari dagokionez ez dira horren ondo hasi neskak. Lehenengo jardunaldian 7-0 galdu zuten bergararren aurka eta aurreko domekan, urria- ren 1ean ere 0-9 galdu zuten.



Neskek, 0 eta 9 galdu zuten joan zen asteburuan.



Puntu beharrean dago mutilen hamaikakoa.

ANTZUOLA

Apainketak eta isola-
menduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21, ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Maria Jesus eta Tomas. ARTXIBOA



Bidaurreko frutak. ARTXIBOA

San Martinetako eta Ordiziako ferietan sarituak

Bergarako San Martin ferian, Antzuolako Lapatza beserrikoek, Maria Jesus Gorritxo eta Tomas Larrañagak, barazki biologikoen sailean lehen saria irabazi zuten. Hau ez da azkenaldian jaso duten sari bakarra, Ordiziko ferian ere, barazki biologikoen sailean, lehen saria

atera zuten eta. Aretxabaletan, saririk ez egon arren, bigarren postua lortu zuten bertako ferian.

Bidaurre baserrikoek ere, bai Bergarako San Martin ferian zein Ordiziko ferian, lehen postua eskuratu zuten fruiten sailean. Zorionak denoi!

Haika gazte taldearen aurkezpena

Joan zen ostiralean, irailaren 29an, arratsaldeko 18:30ean Gazte-txean, Haika euskal gazte taldea aurkeztu zen. Aurkezpenaz gain batzar eratzaille honetan gaur egungo gazte-riaren arazo eta egoerari buruzko eztabaida bideratu zen. Haikakoen hitzetan " Haika lehen gazte erakunde nazionala da, eta gure ardatza gaztea, Euskal Herri osokoa, anitza, eus-

kalduna, independentista, iraultzailea eta internazionalista da. Asanblada bidez antolatzen gara eta herri guztietara zabaldu nahi dugu. Aurkezpen batzar irekiak egin nahi ditugu eta ondoren bertan bildu diren gazteak prozesu honekin jarrai dezaten animatu, eztabaidetan parte har dezaten, Haika gazte taldea eraiki ahal izateko."

VI. ARGAZKI LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO EPEA AMAITZEAR

Antzuolako Udalak antolatuta, VI. argazki lehiaketa egingo da urrian. Bertan Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek har dezake parte. Gaia librea izango da eta hiru taldetan banatuta egongo dira mailak; lehen maila 14 urte arte, bigarrena 15-25 urte artekoak eta hirugarren maila 26 urtetik gora. Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztuko ditu. Lanak koloretan nahiz zuri-beltzean aurkez daitezke.

Aurkezpenari dagokionez, argazkiaren euskarria 30x40 zentimetrotakoa izango da eta krema edo beige kolorekoa. Argazkiaren neurria egilearen aukeran geratzen da. Argazkiak egileari buruzko datu barik aurkeztuko dira, bakoitzari atze aldean izenburua ipiniko zaio. Argazkiarekin batera kartazal itxia aurkeztuko da, kartazal gainean lanaren izenburua eta zein kategoriatan parte hartzen duen jarriko da. Kartazal barruan, beriz, partehartzailearen datuak eta argazkiaren izenburua sartuko da.

Lehen mailan parte hartzaile guztientzat egongo da saria. Bigarren eta hirugarren mailan, lehen saria 25.000 pezetatakoa izango da eta bigarren saria 15.000 pezetatakoa.

Aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da. Ez ahaztu orijinaltasuna, eta kalitate tekniko eta artistikoa hartuko direla kontutan. Animo eta parte hartu!!!!

UDALETXEAN BILTZEN DIRA KALEAN GALDUTAKO GAUZAK

Antzuolako udaletxetik esan digute herrian galtzen diren gauzak herriko udaletxera eramaten dituela jendeak eta gauzok bertan jasotzeko aukera dagoela.

Beraz, zerbait galdu baduzu, joan herriko udaletxeko idazkaritzara, agian han egongo da eta zure zain.

Igor eta Txomin




Margoak orokorrean

ANTZUOLA

BERGARA

609 157 131

609 150 164



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Herriko eskolak ikasturte berriari ekin dio sarrera hankaz gora duela

Eskolarako sarrerak hobetzeko lanak egiten ari dira egunotan

Herriko eskola obraz inguratuta dago. Lehen parke bat zegoen eskola atzean baina orain etxeak egiten hasi dira. Eskolako sarrera batean arrapala edo ranpa egiten ari dira eskolarako sarrerak errezagoak izan daitezen eta beste aldean dagoena ere hobetu egin behar omen dute. Hala ere, nahiz eta orain horrela egon, egoerak hobera egingo duelakoan daude. Ikasturte honetan, 149 neska-mutiko matrikulatu dira eta hamaika taldetan banatuta daude. Talderik handiena 19koa da eta talderik txikiena 11koa baina esan daiteke batzuek beste taldeak 15en bat neska-mutikoz osaturik daudela. Bestalde hiru irakasle berri daude aurtan.

BERGARAKO ESKOLARA

Bergarara eskolara aurtan joan den taldea 14koa da. Antzuolako eskolatik gaztetxo hauei jarraipen akademikoa egiten zaie. Normalean gaztetxo hauekin egon den irakaslea beraien Bergarako irakasleekin egoten da ikasturte hasieran, eta beraien eboluzioaz interesatzen dira, gutxi gorabehera hiru hilabetetero.

Matrikulazioa urteen buruan mantendu egiten da, nahiz eta taldeak nahiko txikiak izan. Aurtan 11 ume hasiko dira eskolan baina ez dute denak batera hasi beharrik, kurtsoan noiz hasi aukeratzeko dute gurasoek ikasturte hasieran. Hala ere, urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran hasiko dira neska-mutiko hauek eskolan.

Ikasturtean zehar egiten diren ekin-tzei buruz, "betiko martxan jarraituko dugu" adierazi digu Mari Josek, eskolako zuzendariak; "eskolan badaude ekin-



149 neska-mutiko matrikulatu dira Herriko eskolan.

tza batzuk urtekoak eta horiek egingo dira aurtan ere.

Irailaren 12tik 15era Espejon eta Urduñan egon dira gaztetxoak, eguraldi ona egin die eta oso pozik ibili dira. Horrez gain, igeriketa ikastaroa ere egingo

da eta aurtan gainera lehenengo hiru hilabetean izango da, eta 20 egun iraungo du. Bestelakoak ere egingo dituzte Santo Tomas feria, Olentzero, lhauteriak, irteerak, erakusketak, urte bukaerako txangoak".

■ ■ ■
"Matrikulazioa urteen buruan mantendu egiten da, nahiz eta taldeak txikiak izan"
 ■ ■ ■

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga


ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriadako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokitak eta tapizatuak •

Hi ez haiz
familia honetan
agertzen



Hi ez haiz
arima
gabekoa



Hi ez haiz
inoren
esklabo



EZ!!!

Haizena Haizelako

GAZTETXULO

Euskal Herriko gazteen bilabetekaria

[aldizkari gazte bat gazteentzako]

Irriaren 6an kioskoetan



Harpidetzarako telefonoa
943 461 883

Bigarren mailako erregionalak eta Urkik bina egin zuten

Eibartarrak bi aldiz aurreratu ziren markagailuan

Karlos Lasak zuzentzen duen bigarren erregionalako futbol taldeak ezin izan zuten denboraldiko lehen garaipena eskuratu, zapatuan, Ipintzan, Urkiren aurka jokaturako partiduan bina berdindu baitzuen.

Lehen jardunaldian Antzuolan 2-1eko emaitzarekin galdu ondoren, zapatuan puntu bat lortzearekin konformatu behar izan ziren bergararrak. Etxekoek ez zuten partidu erraza izan, eibartarrak bi aldiz aurreratu baitziren markagailuan. Hala ere, Lasaren mutilek ez zuten etsi eta partidua bukatzeko 10 minutu falta zirela, Unai Rollanek berdinetaren gola egin zuen. Lehenbiziko golaren egilea Oier Loiola izan zen. Mahoneroen entrenatzailea pozik zegoen bere jokalariek egindako lanarekin: "orain arteko emaitzak ez dira oso positiboak izan baina jokalari



Argazkian, zapatuan Urkiren aurka zelairatu zen hamaikakoa.

larien partetik jarrera ezin-hobe dago, taldea ondo entrenatzen ari da eta sailkapenean gora egingo dugulakoan nago. Orain arte ez dugu zorte handirik izan, jokaturako bi partiduetan markagailuan atzetik joan gara eta".

LAU MULTZO

Bigarren erregional mailan lau multzo bereiztu dira. Bergara laugarren multzoan

dago, Aretxabaleta, Antzuola, Zestoa, Eibartarrak, Urki, Amaiak Bat eta Ondarroako Aurrera taldeekin batera. Multzo bakoitzeko lehenbiziko lau taldeak (16 guztira) bigarren faserako sailkatuko dira. Ondoren, zortzi taldeko bi multzo egingo dira eta multzo bakoitzeko txapel-dunek lehen erregionalera igotzea lortuko dute. Bigarren postuan geratzen direnek ere igoera lortzeko au-

kerak izango dituzte. Carlos Lasak argi dauka zein den taldearen helburua: "igoera lortzea da gure asmoa. Ez dugu txapelketa nahi bezala hasi eta aurrean izango ditugun taldeen maila ere kontuan hartzekoa da. Talde gaztea daukagu baina iaz jubenil mailan jokatu zuten jokalariek denboraldi bikaina egin zuten. Horrek jokalariek kalitatea badutela erakusten du". Plantila 22 jokalarik osatzen dute eta astean bi aldiz entrenatzen du taldeak, martitzen eta eguenean. Partiduak Ipintzan jokatuko dituzte.

ZAPATUAN DEBAN

Momentuz mahoneroak sailkapeneko 5. tokian dira, puntu bakar batekin. Bihar, zapatua, Bergarak Debako Amaiak Bat taldearen aurka jokatuko du Errotazar futbol zelaian. Azken jardunaldian debarrek 3-1eko emaitzarekin galdu zuten Zestoa liderraren aurka.

Mendiaratzek Otsein eta Berrigara saria jaso zuen

Jokin Mendiaratz hirugarren mailako futbol taldeko jokariak joan zen denboraldiko jokari onenaren saria jaso zuen zapatuan Agorrosinen, San Pedoren aurkako futbol partiduen atarian. Otseinek eta BERRIGARAK azken denboraldian etxeko partiduetan gehien nabarmendu zen jokariaren lana aitortu nahi izan zuten eta Mendiaratzek plaka oroigarria eta opari bat jaso zuen Edu Mendibil BERRIGARAKO zuzendariaren eskutik. Jokinek eta bere taldekideek ezin izan zuten zapatuan garaipena eskuratu, San Pedoren aurka hutsnako berdinketa lortu zuten eta.



IÑIGO ZAITEGI

“Fontsi memoriala” mendiko bizikleta ibilaldia domekan

Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta, domekan, urriaren 8an, X. Fontsi Memoriala mendiko bizikleta ibilaldia jokatu da goizeko 10etan. Izen-ematea egunean bertan egin ahal izango da, goizeko 9etatik aurrera, Seminarioko patioan. Federatuek 400 pezeta ordaindu behar izango dute parte hartu ahal izateko eta federatu gabeek, aldiz, 600 pezeta. Hamalau urtetik behar izango dute parte hartu ahal izateko eta federatu gabeek, aldiz, 600 pezeta. Hamalau urtetik behar izango dute parte hartu ahal izateko eta federatu gabeek, aldiz, 600 pezeta. Hamalau urtetik behar izango dute parte hartu ahal izateko eta federatu gabeek, aldiz, 600 pezeta.



Mendiko bizikletan ibiltzeko zirkuitu aproposa gertatu dute Lokatzakoek.

beharko dituzte. Irteera Seminariotik egingo da eta helmuga ere bertan kokatuko da. Domekako proban

kaskoa erabiltzea beharrezkoa izango da, ibilaldiko antolatzaileek azpimarratu dutenez.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Mutriku

Infantilak. Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Hernani

Oñorezko jubenilak. Zapatua. 16:30. Ipintza

Bergara-Ondarroako Aurrera

Lehen mailako jubenilak. Zapatua. 18:15.

SASKIBALOA

Bergara-Atl. San Sebastian

Kadete mutilak

Zapatua. 12:15. Mariaren Lagundia

Bergara-Aierri

Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia

ESKUBALOA

Bergara-Lasalle

Kadete mutilak. Zapatua. 17:30. Kiroldegia

Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak. Zapatua. 18:45. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Lagunak

Bigarren mailako kadeteak

Bergara-Olalde

Lehen mailako jubenilak

Bergara-Eibar

Bigarren mailako jubenilak

Bergara-Añorga

Jubenil banaka

Bergara-Beloki

Bigarren mailako seniorrak

Gaur, eguakitza, 19:00etan hasita

GAIZKA AGIRRE/ Euskadiko motokros txapelduna

“Erregulartasunak eman dit txapela”

Domekan Arrasaten jokatuak probaren ondoren, Euskadiko senior mailako motokros txapelduna dugu Gaizka Agirre (21 urte), 250 cc.ko kategorian.

G. Txapelketa irabaztea espero zenuen?

E. Azkenurreko proban, Gasteizen, irabazteko aukera nuela ikusi nuen. Eta domekan, Arrasaten, lehen txandan 2. sailkatu nintzen eta bigarren txandan, bosgarren. Erregulartasunak eman dit txapela, zazpi probetan garaipen bakarra lortu dut eta.

G. Zer moduz aurreko txapelketetan?

E. Orain arte 6. postuan edo, hor ibiltzen nintzen eta lesio asko izan ditut tartean. Aurten zorte handiagoa eduki dut.

G. Nondik datorkizu zaletasuna?

E. Betitik gustatu izan zait. Aitak ere motorra dauka eta 15 urtekin hasi nintzen motorrean ibiltzen. Gaur egun, txapelketan, Kawasaki KX 250 bat erabiltzen dut. 125 cc.ko kategorian ere konpetitu izan dut baina aberia asko izaten zituen motorrak eta kategoriaz aldatzea erabaki nuen orain dela hiru urte.

G. Joan zen urtean ere txapelduna bergarra izan zen.



E. Bai, iaz Joseba Lopezek irabazi zuen, baina aurten ez du txapelketan parte hartu. Nire kategorian Imanol Zalakain (6.a sailkapenean) eta Asier Blazquez (5.a) bergararrak izan dira. Afizioa badago, baina pena da inguruan zirkuiturik ez egotea.

G. Non entrenatzen duzu?

E. Gasteizen, Altsasun edo Santanderren normalean, salto askoko zirkuituak ditut gustukuen. Aitarekin joaten naiz; esan daiteke bera dela nire entrenatzailea, bere gomendioak baliagarriak izan zaizkit.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefona Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Bildurbarek Opel Lam-Eri.....	10-4
Apa Oxemai-Fac.....	0-6
Bar Ugarte-Amoskibar.....	18-1
Irubide-Buya.....	0-2
Pagomendi-Torrekua.....	9-2
Canalejas-Errotagain.....	4-3

B MULTZOA

Suntsitzailleak-Aterpe.....	1-7
Vacalouras-Ortzi.....	0-9
Bayer-Amilotx.....	0-3
Tom Cat-Etengabe.....	1-1
Kanpazar-Pinturas Bergara.....	5-7
Manitou-Agirrebeña.....	5-3

C MULTZOA

Ezinleike- Mongatxurak.....	2-21
A Ze Flaxa-Patxaran Team.....	5-0
Latex-Artusamak.....	3-4

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

9:30: Pinturas Bergara-Manitou.....	Agirrebeña
10:30: Agirrebeña jat.-Vacalouras.....	Bildurbarek
11:30: Mo(ko)lotov-Ezinleike.....	Mongatxur.
12:30: Mongatxurak-Latex.....	Ezinleike

ZAPATUAN KANPOAN

9:30: Torrekua-Bildurbarek Oel Lam.....	Vacalouras
---	------------

DOMEKAN BARRUAN

9:30: Txipiron-Komando Piperrak.....	Etengabe
10:30: Etengabe-Amilotx.....	Artusamak
11:30: Artusamak-Patxaran Team.....	Aterpe
12:30: Aterpe-Bayer.....	Patxaran T.
16:00: Tom Cat Argandolas-Kanpazar.....	A Ze Flaxa
17:00: A Ze Flaxa-Shaktale.....	Eri
18:00: Eri-Bar Canalejas.....	Pagomendi
19:00: Amoskibar-Pagomendi.....	Ortzi
20:00: Ortzi-Suntsitzailleak.....	Amoskibar

DOMEKAN BARRUAN

10:30: Fac-Errotagain.....	Buya
11:30: Buya-Bar Ugarte.....	Apa Oxemai
12:30: Apa Oxemai-Irubide jatetxea.....	Bar Ugarte

ARGI!

Bayer taldeari

3 puntu kendu dizkiote

B multzoko Bayer taldeari 3 puntu kendu dizkiote Amilotxen kontrako partidura ez aurkezte-agatik. Partidu hori 3-0eko emaitzarekin galdutzat eman zaio, gainera. Ez da txapelketari hasiera ona emateko modua hori...

Zubian partidurik ez

Datorren astean, Pilarika eguneko zubia dela eta, ez da txapelketako partidurik jokatu. Aste honetako jardunaldiaren ostean, hurrengoa urriaren 21ean eta 22an izango da.

Errotagain, Ezinleike eta Amoskibar

Nahiz eta bi aurkari gogorrak aurrean izan, Errotagainek puntu bakarra lortu du orain arte. Ezinleikek eta Amoskibarrek goleada handiak jaso zituzten.

mahoneroak



ARITZ ARABIOURRUTIA
BKEko jokalaria

Beharbada konfiantza gehiegiz zelairatu ginen zapatuan, partidua erraz irabaziko genuelakoan, eta partidua oso txarra atera zitzaigun. Partidu osoan zehar ia ez genuen arriskurik sortu, euren porteriara oso gutxitan hurbildu ginen eta, partidua ikusita, lortutako puntua ontzat eman daiteke. San Pedrok ez zuen maila onik erakutsi, baina gure aldean, izan zituen bere gol aukerak. Dena den, bi taldeok ikuskizun eskasa eskaini genuen.


Azken bi partiduetan puntu bakarra lortu dugu eta pena izan da Agorrosin lehen bi puntuak galtzea, dakigun moduan jokatuz gero zapatuko partidua aurrera ateratzekoa baitzen. Oraindik talde gehienok %100ean egon ez arren, etxeko partiduei eutsi eta kanpoan zerbait lortuz gero, lasai ibiliko gara aurten. Hori da gure asmoa. Astebukeraren ez dugu partidua erraza izango Arenasen aurka, eta hasiera batean, Gobelassen puntu bat lortzarekin konformatzen naiz.

Mongatxurak, Bar Ugarte eta Ortzi

A multzoan Bar Ugartek jokatu-tako bi partidua irabazi ditu eta Mongatxurak eta Ortzi ere aurreneko postuetan dira C eta B multzoetan.



GORA eta BEHERA



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	6	2
2. Bildurbarek Opel Lam	4	2
3. Buya	4	2
4. Pagomendi	3	2
5. Eri	3	2
6. Fac	3	1
7. Amoskibar	3	2
8. Bar Canalejas	3	1
9. Errotagain	1	2
10. Apa Oxemai	1	2
11. Torrekua	0	2
12. Irubide jatetxea	0	2

B multzoa


	P	J
1. Aterpe	6	2
2. Amilotx	6	2
3. Ortzi	4	2
4. Manitou	4	2
5. Tom Cat Argandolas	4	2
6. Pinturas Bergara	3	2
7. Kanpazar harrobia	3	2
8. Etengabe	1	1
9. Agirrebeña jatetxea	0	2
10. Vacalouras	0	2
11. Suntsitzailleak	0	0
12. Bayer	-3	1

C multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	6	2
2. A Ze Flaxa	6	2
3. Artusamak	6	2
4. Guadalest	3	1
5. Txipiron	3	1
6. Latex	0	2
7. Mo(ko)lotov	0	1
8. Ezinleike	0	2
9. Shaktale	0	1
10. Patxaran Team	0	2
11. Komando Piperrak	0	0

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 ZUBILLAGA z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

Otsein Saria

San Pedronen aurkako partiduan jokalarik hauek nabarmendu ditugu:
Aritz Arabiourrutia 3 puntu
Unai Urbesalgo 2 puntu
Arkaitz Arana 1 puntu

Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

.....Berrigara Gida 2001

Berrigara Gida 2001, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida prestatzen dihardugu.

Uxue Zabaleta eta

Uxue Lazkano (argazkian) arituko dira komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko dituzte.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2001 liburutxoak:

Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke: **943 76 03 97**.



Berrigara

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Zabalotegi, ganbararekin eta berriztua. 50 m². 943 76 07 01.

Bolun, jantzia. 607 455 396.

Antzuolako Ibarondo kalean, 88 m². Jantzia eta garajearekin. 943 78 71 53.

Pisua herri erdialdean. 646 305 349 / 636 794 761.

Matxiategi. 943 76 11 01.

Barrenkalea. 656 732 026 (egunez) edo 943 35 39 91 (gauez).

Barrenkalea. 943 76 44 34.

Aranerreak. Jantzia. 75 m². 629 655 195.

Zubieta. 646 516 192.

EROSI

Baserría erosiko nuke Bergaran. 943 18 77 57.

Etxea erosiko nuke Bergaran. 943 76 38 25.

Herri erdialdeko lehen

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

solairu bat edo etxabea erosiko nuke. 609 413 211 (20:30etik aurrera).

ERRENTAN EMATEKO

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Etxeko logelak alokatzen ditut. 943 76 43 95.

ERRENTAN HARTZEKO

Etxea alokatu nahi dut Bergaran edo inguruan. Deitu 943 76 30 84 telefonora.

Etxea alokatu nahi nuke. 943 76 90 83.

Apartamentu txiki baten bila nabil. 655 747 321.

Pisua alokairuan hartuko nuke. 678 212 657.

Etxea alokatuko nuke. Jantzia. 90.000 pta. arte ordaintzeko gertu nago. Presazkoa da. 649 790 901.

ETXE KONPARTITUAK

Pisua osatzeko pertsona bat behar dugu.

30.000 pta. 656 773 637 (Eli)/943 76 15 46 (Iñigo).

2. GARAJEAK

SALDU

Aranerreak. 943 76 24 84.

ERRENTAN EMATEKO

Burdiñate. 943 76 02 34.

Boni Laskurain. 606 217 256.

Santa Marina. 943 76 37 69.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal komertziala hartuko nuke alokairuan. 40-60 m²koa. 646 673 204.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala errentan Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18 m²). Oso merke. 606 962 380.

Lokala alokairuan herri erdian. 120 m². 617 025 376.

Koldo Eleizalden, behea, 50 m². 943 76 37 69.

4. LANA

ESKAINTZAK

Emakume edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 06 92 (Amaia).

Garbiketak egiten lan egingo nuke. Deitu 943 76 53 18 telefonora.

Arratsaldeetan umeak zainduko nituzke. 943 76 13 46.

Umeak zaintzen edo antzeko zerbaitetan lan egingo nuke. Deitu 943 76 00 90 telefonora.

Tabernan, tailerrean edo dendan lan egingo lukeen 35 urteko mutila naiz. Esperientzia. Informatika ezagutzak. 610 972 250 (Antxon).

Geriatrian espezializatutako klinika laguntzaileak zaharrak edo gaisoak zainduko nituzke. Deitu 609 770 133 telefonora.


Neskak garbiketa lanak egingo nituzke jatetxe batean. 639 936 841.

Eskulan ikastaroa

Noiz:
urriaren 16tik
maiatzera arte

Non:
Kartzela Zaharrea
Ordutegia:
15:30etik 17:00etara
Prezioa urte guztirako:
5.000 PTA Jarduneko
bazkideek;
6.000 gainontzekoek
Matrikula epea:
urriaren 11.

Informazioa:
Jardun elkartearen (Kartzela Zaharra)
943 76 08 19 / 943 76 36 61



GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g ☎ 943 76 07 92

MUJIK UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

ESKAERAK

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 07 89.

Emakumea behar da goizez etxeko lanak egiteko. 943 76 05 85.

Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dut. 943 76 48 76.

Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 28 05 / 33 27.

Antzuolan, pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Deitu 943 76 61 04 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 31 72.

Ingeles klaseak ematen ditut. 649 577 059 (18:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak ematen ditut. Esperientzia. 943 76 30 28 / 659 331 741 (Ana).

Klase partikularrak

ematen ditugu. 943 76 31 31 (Juanma) edo 943 76 42 08 (Nere).

Alemaniera klaseak ematen ditut. 943 76 91 33 / 93 74 (Ildoia).

ESKAERAK

Conta Plus klaseak hartuko nituzke. 943 76 27 51.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Seat Marbella. SS-AG. 679 874 695.

Opel Corsa (SS-BB). 15.000 km. 943 79 27 30.

Fiat Uno (SS-AG). 105.000 km, 200.000 pta. 600 289 443.

Audi A4 berria. Deitu 943 76 02 08 telefonora.

VW Polo Diesel (SS-AX). 609 541 613.

Kawasaki Vulcan 800 motoa salgai. 900.000 pta. 943 77 08 69.

Opel Corsa (SS-AM).

943 76 52 31 (gauetz).

Opel Kadett 1.6S (VI-K). Berunik gabe. Egoera ona. 200.000 pta. 619 149 730.

Kawasaki ZZR 600 motoa. Egoera ona. 667 200 768.

7. ANIMALIAK

SALDU

Hiru hilabeteko artzain txakurrak. 943 76 52 21.

Hiru urteko pointerra. 943 76 40 03.

Boxer eta cocker txakurkumeak. Pedigriduak. 696 05 73 46.

8. DENETARIK

SALDU

Jangelako altzari zaharrak: bi komoda tailatu eta mahaia 6 aulkirekin. 639 779 592.

Egongelako altzaria. 2,8 m. 943 76 41 31.

Opel kotxeendako parri-lla, 2 bizikleta eramateko. 943 76 03 75.

Adria karabana, 4 lagunendako. Oso egoera

onean. 943 76 56 84.

Erremolkea. Oso merke. 943 76 12 01.

Tronpeta berria. 943 78 70 52.

Genio 2000. Prezio ona. 943 78 70 52.

Ileapaindegiko altzariak eta materiala. Merke. 943 76 25 38.

EROSI

Bigarren eskuko umeendako kotxea erosi nuke (bikientzat). 677 367 733 (Irika).

GALDU

Urre koloreko perla urdindun lepoko bat galdu dut. 943 76 17 21.

Poltsikoko telefonoa galdu dut, Motorola Startac. 943 76 73 41.

Lau perladun urrezko belarritakoa galdu dut. Eskertuko da. 943 76 09 33 (Maria Dolores).

Rip Curl motxila urdina galdu dut Seminarioan. 943 76 34 34 (Julen).

Zilarrezko txintxirrina. 943 76 50 39.



Langai.

Euskal Lan Zerbitzua

TXARKUTEROA
Donostia. 37877/5

KOMERTZIALA
Bilbo. 37994/3

KLINIKA LAGUNTZAILEA
Ibai eskumalde. 38222/3

KOMERTZIALA
Bilbo. 38420/6

GARBIKETARAKO PERTSONALA
Artxanda. 38427/1

AUTOESKOLAKO IRAKASLEA
Gasteiz. 38522/5

BILTEGIRAKO LANGILEA
Bilbo. 38638/4

GITARRAJOLEA (bajista)
Araba. 38700/1

IGELTSEROA
Bilbo. 38749/4

IGELTSEROA
Donostia. 38750/4

AIRE GIROTUAREN MANTENIMENDU TEKNIKOA
Bilbo. 38757/2

TXOFERRA
Bilbo. 38759/1

ZIENTZIEN IRAKASLEA
Bilbo. 38812/3

KOMERTZIALA
Euskal Herria. 38826/3

PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 38853/2

MEKANIKO MUNTATZAILEA
Tolosa. 38898/3

BIOLA IRAKASLEA
Arabar lautada. 39063/3

TELEKOMUNIKAZIOTAKO PRESTAKUNTZA ARDURADUNA
Bilbo. 39123/6

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.

Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

POL-POL Taberna

943 76 07 78




Jatetxerako BARRAKO ZERBITZARIA eta SUKALDARIA behar dira
943 76 50 99

Tabernarako SUKALDARIA behar da. Esperientzia ez da beharrezkoa
943 76 71 19

Tabernarako ZERBITZARIA behar da
943 76 59 19

Astelehenetik zapatura ZERBITZARI LANAK EGITEKO NESKA behar da
943 76 44 49



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

“Usarraga, Gipuzkoako Batzar Bereziak” liburua kaleratu berri du Diputazioak

Miguel Angel Elkoroberezibar da egileetako bat eta edizioaren zuzendaria

Eguenean aurkeztu zuten liburua Donostiako Diputazioan. Gipuzkoako Batzar Berezien historiaren zati bat jasotzen du. Izan ere, 1445etik 1700. urtera arte Bidegoian herriko Usarraga baserrian egin ziren Batzar Bereziak, eta horixe da, hain zuzen ere, liburuak jasotzen duena. Elkoroberezibar bergararrarekin batera, beste hiru egile ditu liburuak: Jose Luis Orella, Javier del Valle eta Agustin Beloki.

Liburuaren aurkezpen ekitaldian, Joaquin Villa Lehendakartzako Foru Diputatua, Iñaki Alkiza Gipuzkoako Batzar nagusietako Lehendakaria eta lau egileak egon ziren.

Liburuak honako arloak biltzen ditu, besteak beste: Usarraga baserriaren garrantzi historikoa, Batzar Berezien zergatia, egitura eta antolaketa, Batzar Berezi esanguratsuenen nondik-norakoak (Jose Luis Orellak idatzita), Usarragarako bideak (Javier del Valle eta Agustin Belokik idatzita) eta baserriaz eta bertan bizi direnei buruzko datu eta oriotzapenak (Agustin Belokik idatzita). Miguel Angel Elkoroberezibar bergararrak zuzendu du edizioa eta horrez gain aipatutako hainbat arlo landu. Arlo guztiek dute Usarraga abiapuntu eta jomuga, baina helburu, tratamendu, idazkera eta itxura ezberdina.



Jose Luis Orella, Javier del Valle, Miguel Angel Elkoroberezibar eta Agustin Beloki.

GIPUZKOAKO HISTORIAREN ZATI BAT

Usarraga baserriak Gipuzkoako historiaren eta Gipuzkoako Batzar Nagusien historiaren pasarte jakin batzuekin lotura zuzena du. Bertan egin ziren 1445etik 1700. urteko otsailaren 9ra arte Gipuzkoako Batzar Bereziak. Uste gabeko arazoren bat sortu edo Batzar Nagusien ohiko deialdietatik kanpo batzarrerako deia egin behar zenean antolatzen ziren Ba-

tzar Bereziak. Aipatutako garaian, Usarraga baserria eta bere ingurua, eta Bidaniako San Bartolome eliza erabili zituzten nagusiki orduko batzarkideek Batzar Bereziatan mahai gainean izaten zituzten gai berezi eta premiakoak eztabaidatu eta erabakiak hartzeko. Hori guztia kontuan hartuta, liburu hau egiteko arrazoia historiarekiko “zordun sentitzean” datza. Elkoroberezibarrek aipatutakoaren arabera: bai egileak eurar, baita instituzioak ere.

LIBURUA INTERNETEN

Diputazioak interneten jarri du liburua, osorik, gainera. Bere generoan osorik dagoen bakarra da. Helbide hau du: www.gipuzkoa.net-publicaciones.



LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

**INFERNUKUA
TABERNA**
Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

San Joxepeko Hamabostaldi Kulturallean, globalizazioa ardatz

Martitzenean, hilak 10, hasiko da San Joxepeko antolatutako Antzuola eta Bergarako jubilatuen Kultura Hamabostaldia. Aurten, "Erretiratutik partaide izatera" eskulturaren inaugurazioarekin irekiko da martitzenean. Ekitaldian Diputazioko eta Udaleko ordezkariak egongo dira. Ostean, Joseba Arregi parlamentarioak globalizazioa zer den eta zerk eragin duen jorratuko du hitzaldi batean. Bestalde, hamabostaldia iragarriko duen kartel lehiaketako irabazlea Jon Andoni Urisabel pintorea da.

GLOBALIZAZIOA AZTERGAI

Aurtengo egitarauan nabarmentzen den gaia globalizazioa da. Urriaren 17, 24 eta 26an gai horren inguruko hitzaldiak eskainiko dira: 17an Mari Karmen Gallastegi EHuko Ekonomia Katedraduna globalizazioaren dimentsio sozioekonomikoez arituko da. 24an garapen ekonomikoak globalizazioan izandako eragina landuko du Manuel Cendoyak, Miramongo Parke Teknologikoko zuzendariak, eta 26an, globalizazioak gizakiarengan izan dezaken eraginari buruzko mahai ingurua egingo da. Bertan, Jo-



Jon Andoni Urisabelek egindako kartela.

se Maria Setien, Joseba Arregi, Mari Karmen Gallastegi eta Manuel Cendoyak hartuko dute parte San Joxepeko egoitzan.

Aipatutakoez gain, beste hainbat ekitaldi egongo da, "Aukeran", Edu Muruamendiarazen azken dantza koreografia esaterako, urriaren 20an.

Easo abesbatzaren kapera gregorianoaren kontzertua Monja Klaristarren elizan zapatuan

Easo Koruak kantu gregorianoak eskainiko ditu zapatuan, hilak 7, 19:30ean Monja Klaristarren elizan. Easo abesbatzaren kapera kantu gregorianoan adituak diren kideek osatzen dute. Espezializazioa apaiztegietako eta abadetxeetako koruetan parte hartzetik

datorkie, gregorianoa liturgi musika nagusia zen garaian.

Kantu gregorianoa otoitza da. Gozamen estetiko eta bake giroa sor dezake. Easok, helburu bata zein bestea dutenei erantzun nahi die, eta, batera, elizaren altxor hau gorde eta zabaldu.

salduenak iraila

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION
Lourdes Oñederra. Erein
2. VENEZUELA, IRAULTZA ISILAREN...
Pako Aristi. Txalaparta
3. AGUR, EUZKADI
Juan Luis Zabala
4. 101 GAU
Txiliku. Elkarlanean
5. ABERTZALEAK ETA EZKERTIARRAK
Julen Zabalo. Elkarlanean

ERDARAZ

1. TRILOGIA DE CENTROAMERICA
Javier Reverte. Plaza y Janés
 2. LA UNDECIMA REVELACION
J. Redfield. Plaza y Janés
 3. LA QUINTA MUJER
Menning Mankell. Tusquets
 4. LA HERBOLERA
Toti Martinez Lecea. Txalaparta
 5. BAHIA DE LA HABANA
Martin Cruz Smith. Planeta
- Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu*

DISKOAK

1. UNPLUGGED
Mana
2. EL ALMA AL AIRE
Alejandro Sanz
3. EL VIAJE DE COPPERPOT
La oreja de Van Gogh
4. ESTOPA
Estopa
5. LA VIDA ES
Nek
6. IN BLUE
The Corrs
7. ANTROPOP
OBK

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko

ZUBIAURRE

aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atek.
- Neurrira egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma 1. Hitzaldia. 2. Pluralean, barazki-mota. 3. Hegazti-mota. Aurrizkia. 4. Norabait. Kanpo. Bokala. 5. Har ezan! Dirudun. 6. Bi gorputzek elkarren kontra jotzen duteneko ekintza. Hitzez adierazi. 7. Lehenengoa. Bokala. Sanferminetako hirtxa. Bokala. 8. Nafarroako ibaia. Naizen honek. 9. Ukapen. Zero. Burduntzali. 10. EEBBetako urjauziak. Bizkaiko herria.

Goitik behera 1. Nahigabe. 2. Atmosferako geruza. Infin., akitu. 3. Gipuzkoako herria. Behin eta berriz errepikatzen dena. 4. Neguko janzkia. Bokala. Kontsonantea. 5. Arrantza-tresna. 6. Garai. Bokala. Jupiterren satelitea. Röntgen. 7. Litioa. 100 m2. Zamorako ibilgailuetan. 8. Nahikotasuna. 9. 1999an. Tantalioa. Bilo. 10. Nor atzizkia. Esnetik egindako elikagaia.

Soluzioa
 10. Ak. Esneka.
 8. Dotsuna. 9. Iaz. At. Ile.
 E. I. R. 7. Li. Area. Za.
 A. G. 5. Salabardoa. 6. Aro.
 Aki. 3. Lezo. Leioa. 4. Anorak.
 1. Samintusun. 2. Ozonoa.
Goitik behera
 Zail. 10. Niagara. Ea.
 8. Salada. Nik. 9. Uko. O.
 E. san. 7. A. E. Riau. E.
 5. Noi Aberats. 6. Talka.
 3. Mozolo. Iz. 4. Inora. At. E.
 1. Solasaldia. 2. Azenarioak.
 Ezker eskun

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar




Zein bi kaletan daude ate hauek?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Udalak elkarlanerako hitzarmena sinatu berri du ikastetxe batekin. Zeinekin?
 A- Miguel Altuna institutua
 B- Ipintza institutua
 C- Mondragon Unibertsitatea
- Zein kategoriatan irabazi du Gaizka Agirrek Euskadiko motokros txapelketa?
 A- 125 cc.
 B- 250 cc.
 C- 500 cc.
- Noiz egin ziren Usarraga baserrian Gipuzkoako Batzar Berezia?
 A- 1545etik 1700era
 B- 1445etik 1700era
 C- 1400etik 1745era



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Irune Zangituentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Irunerri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **San Migel goiaingeruaren irudia** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Carbonell
 oliba olio 0,4°, litroa
389 PTA!

Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Aranzadi ikastolako jantokixan lan egitten dau Mariasunek. Bertan bazkaltzen daben 30 bat umeri emoten dotse jaten, eta, umiak eskolara bialdu ostian, jantokixa eta sukaldia jasotziaz arduratzen da.

Umezalia izango zara, ezta?

Gustatzen jat umiak, baiña egun guztian zaintzeko adiña ez.

Jatun onak dira Bergarako umiak?

Bai, nahiko onak, batez be txikixenak.

Sukaldian lan egittia oso gogorra ei da. Gustoko dozu zeure lana?

Janarixa ez dotenez nik gertatzen ez jat gogorra egitten; gustatzen jat nere lana.

Zer da gehixen gustatzen jatguna?

Umiekin egotia, umiei jaten emoteko ordua gustatzen jat gehixen.

Eta gutxien?

Dana jasotzia eta umiei jostailluak jasotzeko agintzia.

Sukaldari ona zara?

Ez, ez jat gehixegi gustatzen kozinatzia, gehixago gustatzen jat etxeko beste lan batzuk.

Zein da zure espezialidadia?

Gozo gauzetan, euskal pastela, eta bestela, danian antzera.

Umetan zer izatia nahi ziñuan?

Egixa esan, akordau be ez naiz egitten.

Zure defektu bat.

Pillia edukiko dittut, baiña bat esatiarren, ez naizela bape puntuala, beti aillegatzen naiz bost edo hamar minutu beranduago.

Eta bertute bat.

Hori bestiei galdetu bihar.

Zerk jartzen zaittu haserre bizixan?

Lanian aillegau ezinda ibiltziak.

Eta pozez saltoka?

Mariasun Berrio-Otxoa

Adibidez biajeren bat tokatu ezkeri asko poztuko nitzake. Dana dala, nahiko lasaixa naiz pozez saltoka hasteko.

Zer da zure bizitzan faltan botatzen dozuna?

Ni ez naizenez geldi egotekua, beti daukatenez zerbait egitteko, ez dot ezer faltan botatzen.

Eta zer dago soberan?

Soberan be ez daukat ezer. Nere bizitzan bihar doten dana daukat eta daukaten dana bihar dot.

Bizitzeko toki ideal bat?

Orañ bizi naizen tokixan oso gustora bizi naiz. Egun batzuk pasatzeko kostia edo mendi aldia ondo dare.

Bergarako txoko edo tokirik polittena?

Irukurutzeta, adibidez, oso politta da, toki aproposa da pasuan ibiltzeko.

Zer zaletasun daukazu? Denbora librian zer egittia gustatzen jatgu?

Eskulanak egitten pasatzen dot denbora asko. Danetik egitten dot: gantxillua, lorak sikatu, altzarixak berriztu...

Bukatzeke, amets bat.

Beno, loterixia tokatzia ondo egongo litzake, baiña, egixa esan, orañ arte moduan jarraitziakin konformatzen naiz.



Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta
lumatxoak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

URRATS
TABERNA

KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32



Ollokale futbol taldea, 1960

Garai batean herriko futbol txapelketa Labegaraietako futbol zelaian jokutzen zen eta goiko argazkia bertan aterata dago, 1960. urtean. Argazkikoek Arruriagako Ollokale taldea osatzen zuten eta 17-20 urte bitartean izango zituzten orduan. Jabier Madinabeitia zena urtean izan genuen herriko futbol txapelketako antolatzailea eta, Bergara Kirol Elkarteke jubencil taldeko entrenatzailea zenez, txapelketan destakatzen zutenek mahoneroekin jokatzeko aukera izaten zuten. Luis Mari Belastegiren arabera, 1960ko txapelketan finalerdietan 2-1 irabazi zioten Labegaraietako Acero taldeari eta

finalean 2-0 nagusitu zitzairen Madurakoei. Finala San Inazio egunean, uztailaren 31n, jokatu zen. Hor dugu txapelaldunaren hasierako hamaiakakoa, Belastegi eta Beistegi entrenatzaileekin batera. Ezkerretik eskumara:

Zutik: Luis Mari Beistegi, Jose Mari Larrañaga "Alaia", Pedro Pildain, Luis Mari Ilarduia, Juan Mari Ruiz, Juan Mari Garitano, Jose Ignacio Beristain eta Luis Mari Belastegi.

Makurtuta: Karmelo Otaola, Jabier Lizaralde, Pablo Unzurrunzaga, Juan Gallastegi eta Jose Luis Garitano.

Argazkia: BUA. Roman Larrañaga fondoa

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25


udazkena-negua

MARGA

jantxidenda

San Pedro 20. Bergara. Tf. 943 76 05 37

*Gaur eguneko emakumeok
gazte senti gaitzen.*



Lois

KANBAN

HO-DO
HOMEST

mireya.ruiz

PASH

BCN-XTC-BCN
XTC-BCN

gsussindustries

M A Y A

Udazken-neguko kolekzio berria

Tattoo eta piercing-ei ekin diegu!

DESTROY

EL
DAN
TES

Kickers

Best
SHOES

ART



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK


Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik